

DATORRENA

Herri batek duen hoberena,
plaza publikora **BEÑAT ZALDUA > 3**

«NARKO(COOL)TURA»

Narkotrafikoa idealizatuz imajinario
oso bat sortu duen fenomenoa **> 4**

2015eko abuztuaren 8a | IX. urtea • 428. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BIZKERRE, NESKA FUTBOLARIEN GARAPENAREKIN TEMATUTA **> 10**

GAUR8



**Narkotrafikoa idealizatuz
imaginario oso bat sortu dute** 04

**Bizkerre: Neska futbolarien
garapenarekin tematuta** 10

**Jatorrira buelta etxaldea
salbatzeko** 14

**Kilimak erlaxazio terapia bilakatu
dituzte Gasteizen** 16

**Emaize sexologia zentroko kideei
elkarrizketa, sexu heziketaz** 18

Behatxulotik 23



SINADURAK:

03 **Beñat Zaldua:** Herri batek duen
hoberena, plaza publikora

07 **Ainara Azpiazu «Axi»**

08 **Ander Gortazar:** Aireportuez
(eta II)

09 **Ramon Sola:** Iraila lehenago eta
Katalunia gertuago

17 **Iker Barandiaran:** Orri horiak

21 **Koldo Sagasti:** Titular batek ez
dioena

21 **Mirari Martiarena:** Erantzi

22 **Txelo Ruiz Vazquez:** Haririk
gabe... Edonon...



{ datorrena } **Beñat Zaldua**

Herri batek duen hoberena, plaza publikora

Hamaika aldiz errepikatu dugu dagoeneko irailaren 27an Katalunian egingo diren hauteskundeak ohiz kanpokoak izango direla. Argi uzteko, “plebisitario” abizena jarri die, hauteskundeak debekatutako erreferendumaren ordezkioak izango direla azpimarratzeko. Salbuespen izaera horrekin bat egiten dute, horrenbestez, eratzen ari diren hautagaitzek. Nabarmena da Junts pel Sí hautagaitzaren kasua, non CDC eta ERCko politikariek lehenengo postuak utzi dizkieten gizarteko pertsona ezagunei. Baina CUPEk osatutako zerrendan ere nabaria da alderditik kanpoko izen ezagunak erakartzeko ahalegina. Baita Podemos eta ICV-EUiA osatutako Catalunya Sí que es Pot koalizioan ere. Hala gauzak, udazkenean eratuko den Parlamentuak ohiz kanpoko itxura izango du, ez bakarrik independentzia prozesuaren azken fasea abian jartzeko agindua izango duelako, baita osatuko duten pertsona askoren profila ezohikoa delako ere.

Esan beharra dago egungo legebiltzar katalanaren maila, hots, parlamentarien maila, orokorrean, nahiko altua dela. Gehienbat ondoko parlamentuekin alderatuz gero, Espainiako Kongresua kasu. Mas presidentearen gaitasun dialektikoa dudaz kanpo dago dagoeneko, normalean aurrean daukan aurkariaren mailara egokitzen den arren. PP eta Ciudadansen ordezkariekin dituen hika-miketan Masek lokatzetan sartzeko joera dauka, demagogia eta edozein tranpa erretoriko erabiliz. Baina aurrean beste aurkari batzuk dituenean, ERCko Oriol Junqueras, PSCko Miquel Iceta edo CUPEko David Fernandez adibidez, eztabaidaren maila igotzen da. Ez da bakarrik adostasun maila handiagoa delako (Iceta kasuan urrun daude oraintxe bertan bien iritziak), baizik eta aurkariaren mailak norberaren maila baldintzatzen duelako. Azken legealdian Iceta eta Masen arteko eztabaida batzuen maila bikaina izan da, baita Fernandez eta presidentearen arteko batzuen ere. Antipoda ideologikoetan egonda ere, azaroaren 9ko kontsulta bukatzean Fernandezek eta Masek elkarri eman zioten bersarkada da, azken finean, bien kategoria politikoaren isla nabariena. Kontuz, beraz, aukeratzen diren aurkariekin, haiek finkatzen baitituzte hein handi batean norberaren diskurtsoaren mugak. Kanti egozten zaio, ez dakit arra-

zoiarekin edo ez, ergelekin ez eztabaidatzeko gomendioa, gerta daitekeelako jendeak diferentzia ez sumatzea.

Eta aurkariaren mailak norberarena baldintzatzen duen bezala, eztabaidaren gaiak ere baldintzatzen du eztabaidaren kalitate orokorra. Izan ere, norabide bikoitzeko bidea da kaskartasunarena: eztabaidagai pobre batek hizlari hoberena ergel bihur dezake, hizlari pobre batek eztabaidagai inportanteena hutsal bihur dezakeen hein berean. Erronkak ongi aukeratzea ezinbestekoa da, beraz, eztabaida politikoaren maila igotzeko, txikikeriek eztabaida txikiak baino ezin dituztelako sortu.

ERRONKAREN TAMAINAKO PARLAMENTUA

Katalunian ederki ulertu dute ideia alderdi eta koalizio gehienek. Etorkizuna daukate jokoan eta daukaten hobere-na jarri dute mahai gainean. Junts pel Sí hautagaitzaren adibidea nabaria da: Lluís Llach konpromiso luzea, Mu-

Ohiz kanpoko legealdia izango da Katalunian hauteskundearen ostean hasiko dena, eta egoerarekin bat egingo du Parlamentu berriak ere, han bilduko baitira bertako buru argienetako batzuk

riel Casalsen perspektiba historikoa, Pep Guardiolaen nazioarteko proiektzioa, Germa Belen ezagutza akademikoa edo Montserrat Palauren genero diskurtsoa eztabaidaren kalitatearen berme izango dira. Berdina CUPen kasuan. Euskal Herrian oraindik oso ezagunak izan ez arren, gogoratzeko uneak utziko dituzte Antonio Bañosen erraztasun komunikatiboak, Gabriela Serraren konpromiso historikoa, Anna Gabrielen aktibismo menderaezinak, Mireia Vehik mugimendu sozialekin duen konexioak, Josep Marnel Busquetaren ezagutza ekonomikoak eta Benet Salellasek giza eskubideekin duen konpromisoak. Independentismotik kanpo, Catalunya Sí que es Pot-eko buruek, Lluís Rabell eta Angels Martinez, bizitza oso bateko militantzia daukate abal gisa. Inork ez daki nola bukatuko den auzi katalana, baina datorren legealdiak politika duinduko duela dudatik kanpo dago. •

«NARKO(COOL)TURA»

Narkotrafikoa idealizatuz imajinario oso bat sortu duen fenomeno konplexua

📁 MEXIKO / Mikel Zubimendi

Mundu osoan zabaldu da berria. Berriz ere, *beste* behin ere, Sinaloako kartelego buru eta agian kontinente arteko narkotrafikatzaile indartsuena den Joaquín Chapo Guzmán libre da. Kartzelatik bigarren ospa egiteko antolatutako ihesaldiak Guzmanen inguruko legenda handitu du oso, eta, horrekin batera, seguru aski, Guzmanek aginterako duen beharrian bitala. Ez baita geldi eta itzalean geratuko, ez, jaiotzen ikusi zuen Sinaloa eskualdean “bandido on”, “Robin Hood moderno” gisa daukatena.

Chapo Guzmán bezalakoek gidatzen dituzten droga kartelak ez dira John Gotti bezalako mafiako buruek gidatutako “fami- lien” antzekoak, ezta AEBetako Bloods edo Crips banda urbanoen antzekoak, ezta Infernuko Aingeruak motorzale banda mitikoaren parekoak. Siria, Irak edo Yemengo gerrak aipatzen dira komunikabideetan, bertan gertatzen diren izugarrikeriak haizatzten dira nonahi, baina broma gutxi Mexikon gertatzen denarekin. Biolentziaren gordinkeriari eta hildakoen kopuruei begiratuta berdintsu baita biltza bertan ere.

Drogen kartelak oso egitura- tuta dauden, oso biolentoak diren eta AEBtako arma moderno- enen jabe diren erakunde politiko-militarrak dira. Youtube atarian tortura saioen bideo beldurgarriak edota zubietatik gorputz urkatuak zintzilikatzen dituzte, edota kaleak burua moztuta duten gorputzez betetzen dituzte. Politikari ustelekin elkarlanean esku batekin jo eta bestearekin jasotzen maisuak dira, konspirazio eta maletinen joan-etorriaren kontrola dute, inbertsio eta eraikuntza sare itzelak, Mexiko –edo herrialde- ko hainbat eskualde bederen- «gerra eremu» bilakatzeraino.

Nola eta nondik sortu da, bai- na, droga kartelen biolentzia eta horre guztia idealizatzen duen kultura bat? Nola da posi- ble jarduera horiek erromantiko

Narkotrafikoa eta hari lotutako bizimodua eta biolentzia «glamourizatzen» dituen kultura bat indartu da Mexikon. Sinplismo eta manikeismo- rik gabe begiratu behar den fenomenoak erro sakonak eta askotariko adierazpideak ditu: musika, zinema, janzkera, hizkuntza edota erlijioa bera. Ez da erraza izango, ez, hura erauztea.

bihurtzea, milaka tabernetan “balentriok” kantatzea eta, are, kartelen buruak kanonizatzea?

Erantzun motz eta errazena guztia injustizia sentimendu oso hedatu batetik datorrela esatea litzateke. Edota AEBetako herritarrek droga kontsumitze- ko duten gose aseeginagatik zein porrot egin duen “drogaren aurkako gerragatik” ez baltiz se- gur aski ez zela fenomenoaren exis- tituko.

Baina askoz konplexua- goa da erantzun zuzena, erro sa- konekoa, eta ez ditu sinplismoa eta manikeismoa onartzen.

Historia pixka bat eginez, Me- xikoko lur aberatsenak dituen Sinaloa estatua, Chapo Guzmanen jaioterria, iragan mende ha- sieran herrialdeko kalamu ekoizle handiena zen jada. Gero- ra, txinatar etorkinek ekarritako hazi-ekin, opio eta heroína

Mexiko Hiriko autobus geltoki bateko kioskoan hartutako argazkian argi ikus daiteke ia kultuko pertsonaia bilakatu den «Chapo» Guzmanen irudia dela nagusi Mexikoko egunkari eta aldizkarietan. Yuri CORTEZ | AFP

ekoizle handiena ere bilakatu zen. Hortaz, mende luze bateko kultura batez ari gara hortaz. Kuriosoa da, halaber, tarte batez AEBetako Armadak berak zuzenean bultzatu zuela Sinaloan mitxoleta landatzea. Bigarren Mundu Gerraren edota Viet- namgoaren eraginez morfina bezalako analgesikoak behar zituen soldadu zaurituentzat, eta, hala, Sinaloara jo zuen.

Narkokultura, baina, landa eremuetatik gune urbanoetara pasa da azken hamarkadotan. Legitimazio prozesu bat eman da, bazterreko azpikultura izate- tik kultura dominante izatera igaroz. Askotariko inplikazioak ditu, politikoak, ekonomikoak zein ideologikoak, osagai mate- rial eta immaterialak, eta gizar- tearekiko elkarreragina erabate- koa da.

DENA DA BALIAGARRI

Beste hitz batzuekin esanda, egungo narkokultura arrandia



«Emadazue botere totala, milioika dolar, auto eta emakume txundigarrienak, nire etsaiak dardarka eta izuturik ikusteko zoriona; eta nik, horren truke, gazte hiltzea onartzen dut»


edo nabarmenkerian oinarritutako kultura bat da. Dena da baliagarria pobre izateari uzteko. Zertarako izan aberats ez bada harro erakusteko? Narkotrafikatzaileek erabiltzen dituzten bitarteko material eta sinbolikoak ikusita, boterearen estetika jakin bat dutela agerikoa da, mezu oso argia duena: inpunitatearena, legearen gaintetik egotearena, orden eta justizia propioa ezartzeko ahalmen osoarena.

Arrakastaren sinboloak harrokeriaz erakutsiz, baztertutako pertsonengan aspirazio indartsuak pizten ditu narkokulturak eta faustikoa dei dezakegun paktu bat onartzera bultzatzen ditu: «Emadazue botere totala, milioika dolar, auto eta emakume txundigarrienak, nire etsaiak dardarka eta izuturik ikusteko zoriona; eta nik, horren truke, gazte hiltzea onartzen dut».

“Narko” erabilera anitzeko aurizkiak bere jatorrizko zentzutik (grekoz *narke* euskaraz “loa”, “logalea”) aldaketa nabarmenak ezagutu ditu. Gaur egun drogen trafikoarekin harreman bat duen edozein hitzi atxikitzen zaio: “narkobankariak”, “narkohegaldiak”, “narkofuntzionarioak”, “narkopolitikariak”, “narkolantxak”, “narkolaborategiak”... Dudarik gabe, glosario amaigabe horrek narkotrafikatzaileen bizitzaren eta obraren arketipoak erreproduzitzen asko laguntzen du.

Baina ezberdindu beharra dago, “narkoa” dena ez baita zertan izan behar narkotrafikoa den hori. “Narkoa”, azken batean, narkotrafikoaren inguruan imajinatzen dena izan ohi da, drogen komertzioan dauden ohitura, erritual, erabilera ezberdinen errepresentazio sozial berreraikia delako. Hitza josteko lizentzia hartuta, “narkoegunerokotasuna”, adibidez, “esfortzuaren kulturaz”, “gerrikoa es-tutzeaz” eta gisako dekalogoez nazkatuta egunetik gauera aberastea erabakitzen duen pertsona izan daiteke, edota narkolimosna errefusatzeko duen planak egin baina kartelen buuruak babestu eta absolbitzen dituen eliza.

«Narkoa» ez da zertan izan behar narkotrafikoa den hori: azken batean, narkotrafikoaren inguruan imajinatzen dena da, ohitura eta erritualen errepresentazio sozial berreraikia



Shaul Shwarzen «Narco Cultura» dokumentalaren kartela. GAUR8



Los BuKnas de Culiacan taldea narkokorrido musikaren arrakastaren ikur da. GAUR8

“Narkoa”, hortaz, krimen antolatua baina baita imajinario kolektibo bat ere bada. Narkotrafikatzaileak estigma izatetik ikur izatera pasa dira, eta, esaterako, milaka tona droga airez garraiatzen dituen narkotrafikatzailea “Zerueta Jauna” bilakatu da. Legenda etengabe handitzen da, zurrumurruak ahoz aho komunitateetan barrena zabaltzen dira, fusila eskuan hartuta zaldian zebiltzan Emiliano Zapata edo Pancho Villa bezalako iraultzaile mexikarrak egun luxuzko autoetan eta AK 47 fusil automatikoak leihoetatik erakutsiz dabilzala uste eta kantatzen dute askok.

Arazo konplexua den neurrian, narkotrafikoaz aritzean ezin da biktima eta biktimarioen ikuspegi soil batetik aritu. Narkotrafikoaz aritzeak derrihortutako zein borondatezko kooperazioaz, konpetentzia zein aliantza estrategikoak dituzten sareez hitz egitea exijitzen du. Ezin da manikeismoa nagusitu, ez dago sentsazionalismo beharrik, gatazkak ez dira zuri ala beltz, gris askotarikoak dira. Eta bihoa aitortpena, fenomeno honen inguruko kontakizun bat jostea eta publikatzea are korapilatsuagoa egiten dute.

NARKOKORRIDOAK

Beste praktika kulturekin gertatzen den legez, narkotrafikoa ere aldatzen joan da. Desagertu dira Sinaloako nekazarien arketipo tradizionalak, gaurko narkojuniorrak luxuzko *pick-up* furgonetetan dabilzta eta Europako arropa marka garestiekin janzten dira. Narkokulturak bere gertuko eremua hartu eta bertako errealitatea eraikitzen duelako. Finean, musikan, erlijioan, telenobelean edota zinean zabaltzen diren narratiba horiek guztiek mundu konplexu bat aipatzen dutelako, korapilatsua eta iluna, baina baita erreala eta nabaria ere.

Adibide interesgarri bat musikan daukagu, hain zuzen, anti-goaleko korridoetatik egungo narkokorridoetaraino emandako bilakaeran. Korridoak pertsonaia historikoen ibilera erreal edo imajinarioak kontatzen zi-

tuzten abestiak ziren jatorrian, 1910eko Mexikoko Iraultzaren garaian sona handia hartu eta oso herritarrak bilakatu zirenak. Alfabetatu gabeko herritarrei gertaerak eta berriak kontatzen zitzaizkien kantuon bitartez, heroiak eraikiz eta beren bizitza eta abenturak goratuz. Pancho Villa, buruzagi iraultzaile handia, izan zen korridoetan gehien goratzen zen pertsonaia.

Korrido haieetatik, apurka-apurka, narkokorridoak sortzen joan dira. Aurreneko narkokorridoak 1970eko hamarkadan hasi ziren, Tigres del Norte taldearen eskutik. Sinaloa, Sonora, Tijuana eta Michoacan bezalako eskualdeetan arrakasta itzela izan zuten. Narkokorridoek narkotrafikoa glorifikatu eta erromantiko bihurtzen zuten. Gaur egun, baina, Movimiento Alterado bezalako taldeen eskutik, letra izugarri bortitzak dituzte: narkotrafikatzaile modernoek euren aurkariak hiltzen, torturatzen eta beren gorputzak zatitzean erakusten duten harrota-suna goraipatzen dute. Abestien izenburuak eurak arras adierazgarriak dira jada: “Siguen rodando cabezas”, “100 balazos al blindaje”, “Sicarios de arranque”, “Sangre de maldito”...

Hori bai, paradoxa bat ere badago tartean: hain herritar bilakatu dira narkokorridoak Walmart korporazioko zentro komertzial erraldoietan ere saltzen direla, non, esaterako, Marilyn Mansonen kantak debekatuta dauden iraingarriak direlakoan. El Komander narkodorrido kantari sonatuak ere hiru milioitik gora jarraitzaile ditu Facebook sare sozialean.

Narkokorridoak defendatzen dituzten musikari eta produktore batzuek argudiatzen dutenez, genero musikal bezala jende pobrearen ametsetatik eta etsipenetatik sorturiko «hurrengo hip hop-a» da. Mozkin ekonomiko handiak ematen dituen pagotxa, nolanahi. Kantuotan, funtsean, krimenak kausa justu baten alde egindakoak dira eta narkotrafikatzaileak gobernu injustu baten aurrean pobreen defendatzaile gisa aritzen diren “Robin Hood modernoak”.



Zineman ere indartu da joera berdina. Hor ditugu, esaterako, “Breaking Bad”, “Miss Bala” edo “El Infierno” filmak. Sare sozialetan ere sumatzen da joera bera, mundu mailako erreferentzia egin den “El Blog del Narco” aski ezagunaren eskutik. Fantasia bat sortzen lagundu dute, narkotrafikoa pobrezia atzean uzteko bide motz eta legitimoa dela salduz. Ezer epaitzeke, ñabardura barik, oztoporik gabe.

EMAKUMEAK ERE KARTELEN BURU

Emakumeak “edertasunaren erreginak” izatetik, “erregina” izatera pasatzen ari dira. Jada ez dira soilik buruzagien ondoan dabiltzan andrazko eder, desiragarri, sentsual eta maitagarriak. Ez dira soilik Swarovsky kristalak azazkaletan txertatuta dituzten eta urre eta diamantezko telefono mugikorrekin ibiltzen diren emakume estereotipatuak. Hainbat karteletako buru bilakatu diren emakume boteretsu eta arriskutsu bezala aurkezten dituzte orain, harro eta ausart, tiro egiteko beti prest, txarrean gizona bezala bakoitzak. Mexikoko Iraultzatik aski ezagun eta kan-

tatua izandako “Adelita”-ren, armen erabileran oso trebea eta bere gizona zaintzerakoan oso saiatua berau, edo gizonaren desleialtasuna jakin eta zazpi tiroz hil ondoren betiko desagertu zen “Camelia La Texana” entzutetsuaren arrastotan, gaur egun ere narkoemakumeen ibilerak epikoki kantatzen dituzte, heroina herriar gisa aurkeztuta. Adoretuak, izugarri bortitzak eta guztiz leialak diren emakume gisa ezaugarritzen dituzte. “La Reina del Pacífico” goitizenez mundu osoko komunikabideetan ezaguna egin zen Sandra Avila Beltran izango da, seguruenik, hori guztia ondoen ordezkatzeko duena.

Telenobeletara ere eramanez dute fenomeno berri hau. Eta orotan arrakastatsuen eta pantailaren bitartez Hego Amerikako familia ia guztietara heldu dena “La Reina del Sur” da.

Narkolimosnen bitartez narkotrafikatzaileek euren jaioterrietako elizekin lotura sakonak josi dituzte, kausa onetan erabiliz gero «diru zikina» purifikatu egiten dela iritzita

Acapulcon aurkitutako hilotz baten irudia, narkotrafikatzaileen kartelek eta «drogen aurkako gerra» ofizialak eragindako 130.000 heriotzen arteko bat, beste bat.

Pedro PARDO | AFP

Baina irudikapen oroz gain, errealitateak diosku narkotrafikoan lan egiten duten emakume gehienek beharra dutelako edo behartuak izan direlako egiten dutela. Eta gehienetan, lan arriskatuak hartuz, trafikoa- ren kateko katebegi ahulenetan dihardutela (*mulera* gisa lan eginez, hots, irentsitako latexko botetan droga garraiatuz).

NARKOSANTUAK

Erlijioa da narkokulturaren beste osagai funtsezko bat. Guadalupeko Ama Birjinari, San Judas Tadeori (kausa galduen eta egoera desesperatuen patroia) edo Jesus Malverderi (pobreei emateko aberatsei lapurtzen zien bandidoa) narkotrafikatzaileek dieten debozioaren bitartez bideratu izan da narkotrafikoaren arlo erlijiosoa.

Horrez gain, narkolimosnen bitartez, narkotrafikatzaileek euren jaioterrietako elizekin lotura sakonak josi dituzte, kausa onetan erabilitako “diru zikina” purifikatu egiten dela uste baitute. Badira ere Heriotza Santuari edo Santeriari debozioa erakusten diotenak, baina hori ez da gehiengo baten joera.

Deigarria da ere La Familia Michoacana kartelaren sortzaile Nazario Moreno Gonzalez, 2010ean tiroz hildakoa, bere eskualdean “kanonizazio prozesuan” dela; bere sorterri Apatzigan herrian santutzat hartzen dute eta bere omenez kaperak eta baselizak behin eta berriz –poliziak txikitzen baititu– eraikitzen dituzte.

Hori bai, narkotrafikoaren eta erlijioaren arteko harremanaren eraikuntza soziala norbaitekin egin bada ikusgarri, hori Jesus Malverde narkosantuarekin da. Sinaloan 1870 eta 1909 artean bizi izan zen, pobreei emateko aberatsei lapurtuz, eta, balaz zauritutakoan, bere kideei agintarien esku utz zezatela erregutu zien, hori bai, bere buruaren gainean jarritako saria herritarren artean banatzeko aginduz. Egundak publikoki sikario eta narkotrafikatzaileen santua da eta bere irudia Sinaloa, Chihuahua, Los Angeles edo Kolonbiako Cali hiriko kaperetan aurki daiteke. Erlijiotasun herriar horrek, pobreekiko debozioaren eskutik, musika edo zinemak bezala, narkotrafikoaren biolentzia legitimatzen du. Eta erauzten asko kostatuko diren erro sakonak ditu.

DONOSTIA GOYA JOTZEN



Ainara
Azpiazu
«Axi»

iRRITZIA:





Ander Gortazar Balerdi - @derzu_uzala
Arkitektoa

Aireportuez (eta II)

Duela hilabete aritu nintzen txoko honetan bertan aireportuei buruz hizketan. Aipatu nuen Euskal Herriak «per capita» duen aireportu kopuru altua, eta zalantzan jarri azpiegitura horiek guztiak garatu, hobetu, handitu, bultzatzeko dugun behar intrintseko hori. Suitza eta Frantziak elkarrekin kudeatzen duten Basel-Mulhouse-Freiburg aireportua adibide gisa jarrita, Hondarribiko aireportua itxi ahal izateko baldintzak sortzeko aukera aipatu nuen, Miarritzeko aireportua bihurtuz Donostia-Baiona konurbazioaren aireportu bakar.

Ez da ohikoa aireportu bat aireportu handiago bat ez den beste zerbaite bihurtzea. Garai batean aireportu militar zirenak aireportu zibil bilakatu ziren; urte batzuk geroago, aireportu zibil horietariko asko handitu egin dira, beste batzuk esperoan daude, baina oso gutxi izan dira funtzioz erabat aldatu dutenak. Berlin da, seguruenik, salbuespen interesgarriena. Bigarren Mundu Gerraren ostean lau sektoretan banatuta zegoen hiria: Ekialdeko Berlin sobietarra alde batetik, eta Mendebaldeko Berlin amerikarra, britainiarra eta frantsesa bestetik. Sektore bakoitzak bere aireportua zuen: Ekialdean Schönefeld; Mendebalean Tegel, Gatow eta Tempelhof. Azken hori, hiriko ikonikoa, 2008ko urrian itxi eta parke bat da ordutik.

Parke berezia inondik inora, Hondarribia post-aireportuak gertutik jarraitzeko modukoa. Jaime Lerner Curitiba alkate ohiaren «ez ezer egin, urgentziaz» *leitmotiv*-a bere egin eta minimoa izan da interbentzioa, izenetik hasita: Tempelhofer Feld eta ez Tempelhofer Park; “zelaia”, alegia, eta ez “parkea”. Hainbeste errota da urgentziaz ezer ez egitearen aldarria,

ezen erreferendum bidez esan baitzioten berlingarrek ezetz Udalak parkea berritzeko (eta bidez batez 4.700 etxebizitza egiteko) egitasmoari. Sorkuntzaren boterea baino indartsuagoa da, antza, sorkuntzari muzin egitearena.

Izan ere, badirudi krisibitarteko/osteko hirigintza-estrategiak gertuago dabiltzala «laissez faire» esapide frantsetik «erabaki, diseinatu, eraiki» hierarkikotik baino. “Egiten utzi”, alegia, administrazio-arau zurrinak nola malgutu jakitea, erabiltzaileekin proiektu partekatuak adostea eta proiektu horiek proba-akats estrategia moduan ulertzeko beldurrik ez izatea. Berlinen, urte luzez, ohikoa izan da garatu gabeko orubeen behin-behineko erabilera informal eta espontanea. Tempelhof Feld harago doa, behin-behineko erabilerok plangintza prozesu batean integratzen dituelako, hirigintza ulertzeko modu parte-hartzaile baten bizkarrezur moduan. Eta hori ez diot nik, parkeko informazio paneletan irakur daiteke.

Ederra da Tempelhofer Feld. Aireratze eta lurrartze pistek sei kilometroko zirkuitua osatzen dute oinez, korrika, bizikletaz, skatean ibiltzeko. Tartean eta alboetara nahieran erabiltzeko belardi andana, funtzio zehatz baterako aurrez diseinatu gabeak, baina baita eremu sotilki hesituak ere, bio-niztasuna bermatzen dutenak. Interesgarria oso, espazio erabat antropomorfizatu batek ekosistema natural bati egin diezaiokeen mesedea, eta ezin Hondarribia burutik kendu. Gune bat deshazkundeari eskainia, naturaren eta jendearen arteko harmonia bultzatuko lukeena Txingudiko parke ekologikoan, Eurohiriaren bihotzean. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI - @derzu_uzala

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Iraila lehenago eta Katalunia gertuago

Euskal politika udako lozorroan den bitartean, inertzia-edo urtez urte errepikatzen den aspaldiko ekitaldi agenda bertsuari lotuta, esnaesna eta lanean buru belarri ari dira Katalunian zein Madrilen, iaz data berdinetan Eskozian edo Londresen ari ziren bezala. Izan ere, orduko irailaren 18 hartan bezala, oraingo irailaren 27an ere zirt edo zart egingo du herri baten mende askotako nahiak. Gauza serioa, oso. Gurean, bien bitartean, kontu txikiago eta urrutiagoetan dago arreta. Hala, gizarte zibiletik Estatuko hauteskundeetarako hautagaitza komun indartsuak osatzeko mahai gainean jarritako proposamen zentzudunek piztu dute arreta, irailetik aurrera erabaki irmoak eta erantzun argiak beharko dituztenak. Baina, aurretik, irailean bertan, Kataluniako hitzordua dugu, Eskoziakoak bezala Euskal Herriaren etorkizunaren gainean berebiziko garrantzia duena, itzela.

Ba al da Euskal Herritik Katalunia laguntzeko inolako modurik, elkartasun mailan besterik ez bada ere? Beharko luke. Asmoak, behintzat, mahai gainean beharko luke dagoeneko, bai behintzat erabakitzeko eskubidea lortzea Euskal Herriaren benetakoa lehentasuna bada. Boiseko jardunak islatu du horrek diasporan eragiten duen ilusioa, baina horren gainetik nabarmendu du EAJri borroka honek eragiten dion gogo eskasa, gogo eza

ez esateagatik. Herria eta alderdia, talkan beste behin ere. Edonoren ikuspuntutik lotsagarria bada jaialdia alderdiaren 120. urtemuga ospatzeko erabili izana. Azken garaipenak Sabin Etxea harropuztuko zuela aurreikusuten zutenek ondo ezagutzen dituzte jeltzaleak...

Kontuak kontu, Kataluniako hitzorduen aurrean nola kokatu euskal eragile orok egin beharreko urgentzia-ko hausnarketa izan beharko litzateke, Gudari Egun horren bueltan norabide batean (independentziantz) zein bestean (birzentralizaziorantz) gauzak azkartuko direlako, dudarik gabe. I27ko irabazleak ez du gatiburik hartuko, erdibideko konponbideetarako tarteak oso estuak dira-eta. Dena ala ezer ez. Jakina, euskal eragile batzuen kasuan zalantzarik ez da, erabakita dago hartu beharreko posizioa bai diskurtsoan bai praktikan: EH Bilduk posizio oso argia du, noski. PSErentzat eta PSNrentzat hausnar-

keta ere ez da beharrezkoa, Ferrazetik finkatuko baitiete posizioa. PPren kasuan, berdin. Podemos Ahal Duguk dena du definitzeko: bai hemen bai Madrilen bai Katalunian. Hori bai, iparrorratza «jendearen» iritzi nagusiak mugituko duela sinisten badu, hor du nolabaiteko heldulekua. Guztien artean erabaki zailena duena, itxuraz, EAJ bera da, Kataluniakoak bere ibilbide orri eroso goitik behera aldaraz dezakeelako.

Mespretxu puntu batez begiratu diote jeltzaleek Kataluniako burujabetza prozesuari. Duela gutxira arte, Artur Masek ibilitako bidea Juan Jose Ibarretxek duela hamarkada bat jorratutako bera baino ez zela argudiatu izan dute. Bada, ez. Madrilen danbatekoa jasota, aurrera egin du Masek eta beste ate batetik sartu nahi du Katalunia estatuen munduko mapan, gu guztiok duela urtebete eskas amestu ere ez genuena. Bide batez, EAJren diskurtsoaren euskarri dena, oraindik ere Eskozian gertatu be-

Ate joka den Kataluniako hitzorduak agertoki berria sortuko du eta EAJri eragingo dio bete-betean. Lehenengo erabakia: Convergencia ala Unio ote den. Eta Convergencia bada, noraino

zala Estatu espainolarekin erabakitzeko eskubidea nola gauzatu adosteko aukera badela, gezurtatu egin du Kataluniako prozesuak. Hortaz, dagoeneko erabaki bat hartu behar du Sabin Etxeak, atzerazina: Convergencia ala Unio izango den. Eta Convergencia bada, noraino.

Gero-gerokoak, beraz. Abendua abendurako, eta, iraila, gaur-gaurko. Azken finean, Estatuko hauteskundeek zerbait aldatuko ote duten misterioa irailaren 27an hasiko da argitzen. Kataluniako emaitzek eta emaitzon kudeaketa politikoak baldintza dezakete neurri handi batean Kongresuan eta Senatuan sortuko den indar banaketa berria, eta, batez ere, agertokia –aurre egin beharreko erronka alegia–, guztiz ezberdina izango da irailaren 28an batzuek ala besteek irabazi. Eta agertoki horretan euskal eragileak ez lirateke bigarren mailako gonbidatu izan beharko, lehen mailako koprotagonista baizik. •

GETXOKO BIZKERRE

Neska futbolarien garapenarekin eta formakuntzarekin tematuta

Aurreko urtean jendeak erotuta nengoela esaten zidan neskak mutilen aurka lehiatzen jarri nahi izateagatik, baina nik banekien zertan ari nintzen. Nire bederatzigarren denboraldia da neskekin lanean, aurretik mutilekin ibilia naiz, eta, beraz, eza gutza batzuk baditut». Hitz horiek Xabier Arrietarenak dira, Getxoko futbol taldeko koordinatzailearenak. «Usteak erdi ustel» dio esaera zaharrak, eta, kasu honetan behintzat, hala izan da, denborak arrazoi eman baitio Arrietari: «Jendeari begiak ireki dizkiogu. Denboraldi osoan zehar egindako lanarekin denen errespetua irabazi dugu eta neskek futboleko oso ondo jokatzen dezaketela eta mutil batzuei aurre egin diezaietela erakutsi dugu. Horrek guztiak askok eta askok emakumezkoen futbola-

 **KIROLA** / Mikel Ibargoin

Getxoko Bizkerre futbol taldeko infantil mailako neskek beste horma bat apurtu dute, historian lehenbizikoz mutilen ligan jokatuta. Esperientzia oso positiboa izan da arlo guztietan: taldeak maila oso duina eman du kirol arloan eta aurkariak sentsibilizazio eta errespetu handia erakutsi dute. Aurtengoaren arrakasta ikusirik hurrengo urtean proiektuari jarraipena emateko nahia du Bizkerrek, betiere nesken garapena jomuga izanda.

ren gainean zuten begirada aldatzeko balio izan du, eta hasieran kritikatu ninduten batzuk ere etorri zaizkit zoriontzera». Bizkerrek urte mordoa darma emakumeen futbolaren alde lanean eta Bizkaiko erreferente nagusietako bat da. Hurrengo

denboraldian emakumezko 160 jokalarizko 11 talde desberdinetan banaturik: bi benjamin, bi alebin, hiru infantil, kadete bat, jubenil bat, nagusien bigarren taldea eta Euskal Ligakoa. Zifra potoloak dira inondik ere, baina hala eta guztiz ez dira

Bizkerre taldeko infantil mailako neskek aurtengo lehenengo mutilen ligan jokatuta. Esperientzia bikaina izan da, bai kirol arloan bai jarretan. GAUR8

konformatzen: «Eskaera handia dago. Gero eta neska gehiagok jokatu nahi dute futboleko eta guk egoera horri irtenbide bat eman behar diogu». Bestalde, egindako lanak fruituak ematen dituela ikusteko Bizkerretik igarotako entrenatzaile eta jokalarien zerrendari erreparatu besterik ez dago. Esate baterako, duela gutxira arte Athleticen emakumezkoen alorreko koordinatzailea zen Iñigo Juaristi Bizkerren hasi zen entrenatzen. Jokalariei dagokienez, Tzibi, Leixuri Angulo, Amaia Olabarrieta eta Garazi Muruak bertan eman zituzten lehen urratsak, besteak beste.

GARAPEN EGOKIA HELBURU
Bizkerreko teknikariek argi daukate zein den klubaren filosofia, emaitzetatik harago jokalariek behar bezalako formakuntza jasotzea eta urrats egokiak emanez futbolari moduan garatzea, hain zuzen: «Xedea ez da gazte mailetan kosta edo kosta partida guztiak irabaztea, baizik eta maila nagusirako jauzia emateko ordua iristen zaienean ahalik eta baldintzarik hoberenetan egotea. Maila nagusian bai, orduan taldea goian izatea nahi dugu, baina ordura arte nesken formakuntza lehenetsi behar da, eta hori guk oso argi dugu», zehaztu du Arrietak.
Nesken formakuntzarako metodik eta biderik aproposena bilatzen tematuta dago Bizkerre eta bada denbora bat bigarren urteko infantil mailako neskek futbol 7an jokatuta zenbait akzio tekniko eta taktiko egiten ez zituztela hauteman zutela.
Zantzu hori baieztatzeko ikerketa bat jarri zuten abian adin horretako neskekin. Futbol 7an jokaturiko bost partida eta futbol 11n jokaturiko beste bost partida aztertu eta alderatu zituzten, eta ateratako ondorioak argiak ziren: «Guk ikusten genuen neskak entrenamenduetan gurekin kontzeptu batzuk entrenatuagatik futbol 7ko zelaiak dituen neurriengatik kontzeptu horietako batzuk ez zituztela barnetatzen: hala nola, buruz egindako erremateak, oinbularrarekin pase luzeak egi-



tea eta goitik datozen baloiak defendatzea. Ikerketak hori guztia berretsi zuen».

Horrek, noski, nesken garapena erabat oztopatzen du eta irtenbide bat bilatu nahian burutako lana eta emaitzak Bizkaiko Diputazioari helarazi zizkioten: «Diputazioak hasieratik erakutsi zuen aldeko jarrera eta elkar-lanean irtenbide bat topatzen hasi ginen». Bizkerreren nahia infantil mailako nesken futbol 11ko liga bat eratzea zen, baina, momentu horretan ekimen hori martxan jartzeko izan zitzaketen oztopoak aztertuta –taldeetan jokalaria falta, esaterako–, bide hori albo batera uztea eta bestelako konponbide bat topatzea erabaki zuten. Hala, konturatu ziren futbol 11n jokatzeko aukera bakarra mutilen ligan jokatzela. «Proposamen erabat iraultzailea zenez, Diputazioak zalantzak izan zituen lehen momentuan. Izan ere, galdera asko etortzen ziren burura: nola egokituko ziren neskek mutilen ligara, nolako harrera izango zuten, nola erantzungo zuten mutilek...».

Garai hartan, klubeko mutilen taldearen aurka lagunarteko partida batzuk jokatu zituzten ea haiekin lehia zezaketen ikusteko, eta konturatu ziren baietz. «Partida haietan jabetu ginen teknikoki hobeak ginela, taktikoki hobeto moldatzen ginela eta baloi jabetza gehiago genuela. Halere, egia da haiek fisikoki nagusi zirela. Dena den, guk bagenekien maila duin bat eman genezakeela».

HARRITUTA NESKEN MAILAREKIN

Diputazioak azkenean oniritzia eman zion proiektuari eta proba moduan denboraldi batez Bizkerre infantil mailako mutilen bigarren ligako multzoetako batean sartzea erabaki zuen. Arrietak puntu hori azpimarratu nahi izan du, mutilen bigarren mailan aritu direla, alegia. Izan ere, onartzen du lehen mailako exijentzia beste bat dela eta gauzak bere testuinguruan sartu nahi ditu.

Bizkerreko teknikariek konfiantza zuten taldeak eman zezakeen mailaren gainean, baina



bazuten bestelako kezkarik: «Neskek mutilak gainditzea lortuz gero zer gertatuko zen jakiteak buruhaustea sortzen zizkigun. Izan ere, jakin badakigu gizartea nolakoa den eta futbol mundua gizonena izan da nagusi orain arte, nahiz eta gu hori aldatzen saiatzen ari garen». Hatik, ez dute arazorik izan eta es-

Infantil mailan neskek futbol 7an jokatzeko dute eta geroago pasatzen dira futbol 11ra. Bizkerreko arduradunak konturatuta zeuden berandu dela futbolarien garapen egokirako eta horregatik zabaldu dute neskek futbol 11n jokatzeko aukera. GAUR8

perientzia guztiz positiboa izan dela nabarmentzen du. «Bai aurkariak baita haien gurasoek ere errespetu handiz tratatu gaituzte eta sentsibilizazio handia erakutsi dute».

Esperientzia aitzindaria izaki, zeresan handia eman du Bizkaian, eta, bereziki, Getxon. «Gure instalazioetan futbol 11ko

hiru zelai ditugu eta neskek jokatzeko zutenean jende guztia neskek ikustera joaten zen. Jendeak ez zekien adin horretan eta mutilen aurka neskek hain ondo joka zezaketenik. Jendea, agian, morboagatik gerturatzen zen, baina gero harrituta gertatzen ziren neskek zuten gaitasuna ikusita».

Kirol arloari erreparatuta ere esperientzia positiboa izan da, nahiz eta hasieran maila eta zelai berrira egokitzea zertxobait kosta. «Nesken lehen urtea zen futbol 11n eta mutilek aldiz, aurkeko urtean ere jokatu zuten. Dena den, bosgarren partidatik aurrera neurrietara egokitu eta primeran moldatu ziren. Bi edo hiru partidetan izan ezik, neskek aurkariak baino baloi jabetza handiago izan zuten».

Ligak bi fase izan zituen. Lehen fasean 11 taldetik bederatzigarren postuan geratu zen Bizkerre. Ondoren, bigarren fasean, taldeak lehen fasean lortutako postuaren arabera gainerako multzoetako taldeekin nahastu ziren. Hau da, lehen postuan amaitu zutenak gainerako irabazleekin, bigarrenak gainerako bigarrenekin eta horrela hurrenez hurren. Beraz, Bizkerrek gainerako multzoetan liga bederatzigarren postuan amaitu zuten taldeekin osatu zuen multzo berri bat. Bigarren fase horretan hirugarren izan zen, lehen sailkatuarengandik hiru puntura eta partida bakarra galduta. «Emaitza askok ez dute era objektiboan erakusten futbol zelaiaren gertatutakoa. Izan ere, gu partida askotan aurkariak baina hobeak izan ginen, nahiz eta amaieran partida horiek galdu. Mutilak normalean altuagoak izaten dira eta geldikako jokaldietan min handia egiten ziguten. Hala erabaki ziren partida asko gure aurka».

Halaber, mutilekin lehiatzeak beste exijentzia maila bat eskatzen duela kontatzen du Arrietak eta hori ere mesedegarritzat jo du: «Mutilen aurka partida guztietan euren %100a eman behar dute, eta, neskekin jokatuz, aldiz, partida gutxi batzuetan soilik ematen zuten %100a. Hori ere haien mesederako da

eta aurrerapauso handia eman dute arlo horretan».

ZEIN DA NEURRIRIK APROPOSENA?

Neskentzat adin bakoitzean fut-
bolean aritzeko neurri apro-
posa zein den jakiteko Bizkaiko
Diputazioak ikerketa sakonago
bat egitea erabaki zuen Kimet
Sport enpresaren bitartez. Biz-
kaiko hamar taldek euren arte-
an partidak jokatu dituzte den-
boraldian zehar futbol 7an,
futbol 9an eta futbol 11n, helbu-
rua neskentzat adin bakoitzean
zein neurritako futbol zelaiak
diren aproposenak jakitea iza-
nik. Horretarako partidak graba-
tu dira, GPSak erabili dira, nes-
kei pultsometroak jarri zaizkie...
«Sakonean egindako ikerketa
izan da. Oraingo zelaien neu-
rriak mutilen ezaugarrietarako
pentsatuta daude eta orain nes-
kei zer komeni zaien jakin nahi
dugu».

«Jendeari begiak ireki dizkiogu. Denboraldi
osoan egindako lanarekin denen errespetua
irabazi dugu eta neskek futbolean oso ondo
joka dezaketela erakutsi dugu»

Bizkaiko Aldundiak ikerketa sakona egin du
adin bakoitzean neskentzat zelai aproposa
zein den jakiteko. Ondorioz, hurrengo urtean
infantilek futbol 9ko liga ere izango dute

Joan den uztailaren erdialde-
an elkartu ziren bilera batean
Aldundiko, Kimet Sport enpre-
sako, Bizkerreko eta beste hain-
bat emakume taldetako ardura-
dunak. «Esperotako emaitzak
eman ditu ikerketak. Horren
arabera, futbol 7ko zelaiaren ta-
maina ez da aproposa infan-
tiletan maila on samarrean ari-
tzen diren neskentzat. Hori zen,
hain juxtu, guk aurretik esaten

Aurtengo esperientzia
abiapuntu, datorren urtean
Bizkaian infantil mailako
neskentzat bi aukera izango
dira: futbol 7an zein futbol
9an izango dira ligak.
GAUR8

genuena eta horretan arrazoia
eman digute. Baina bereizi egin
dituzte maila ona eta maila ez
hain ona dutenak, eta horien
ezaugarriak eta beharrak des-
berdinak direla nabarmendu
dute», azaldu du Arrietak.

Bestetik, ikerketak nabarmen-
du duenez, futbol 11 eta futbol 9
kategorien artean dagoen des-
berdintasun nabarmenena gol
aukeretan dago; «izan ere, fut-
bol 9an gol aukera gehiago sor-
tzen dira». Arrietak argitu due-
nez, «duela urtebete bi aukera
baino ez zeuden, futbol 11 edo
futbol 7. Eta guk futbol 11n joka-
tzea erabaki genuen. Orain bes-
te ate bat zabaldu da, futbol
9arena». Futbol 11ko zelaian jo-
katzen da futbol 9an, baina ate-
ak area ertzean jarrita. Hartara,
futbol 11ko zelaiaren zabalera
berdinekoa da joko zelaia, baina
luzeran motzagoa. Eta ikerketa-
ren arabera halako neurriko ze-

laietan golerako aukera gehiago
sortzen dira. Hori ikusita, dato-
rren urteko denboraldirako
erabaki bat hartu dute Biz-
kaian: nesken infantil mailan
bi talde izango dira, A liga eta B
liga, jokalarien mailaren arabe-
ra. B ligan futbol 7an jokatuko
dute, eta, A ligan, futbol 9an.

«Erdibide horretara iritsi gara
eta ideia ona iruditu zaigu. Ez
gara erabat futbol 7ra bueltatu-
ko, ikusi baitugu formakuntza
handiko nesken garapena ozto-
patu egiten duela. Horregatik
iruditzen zaigu jokalaria horien-
tzat futbol 9ko tamaina egokia-
goa izango dela. Baina ikusteko
dago, noski. Ikerketak emanda-
ko datuen arabera tamaina hori
egokiagoa da eta hala espero du-
gu. Datorren denboraldian iku-
siko dugu», azaldu du Arrietak.

Lehen aldia da horrelako saia-
kera bat egiten dena infantil
mailako nesken futbolean eta
horrek beldur pixka bat ere
eman dezake. Baina Bizkerretik
oso modu baikorrean balora-
tzen dute Bizkaiko Diputazioak
eseri eta nesken futbolaren in-
guruan hausnartzeko tarte
hartu izana, «lehen pauso ga-
rrantzitsua da».

Bizkerreko ordezkariak pozik
daude erabakiarekin, nahiz eta
aukerarik onena A eta B multzo-
etan banaturiko nesken futbol
11ko liga bat sortzea litzatekeen
euren ustez, mutilekin egiten
den bezala. Izan ere, nesken tal-
de gutxiago daudenez denak ba-
tera jarri ohi dira eta taldeen ar-
tean desberdintasun handiak
daude. «Lehiaketarentzat ona
izango da A eta B taldeak egotea.
Erabaki hori garrantzitsua izan-
go da». Bestea, futbol 9arena,
esan bezala, ikusteko dago.

Kontuak kontu, emakumezko-
en futbolak aurrera darrai eta
honakoa beste adibide bat baino
ez da. Arrietaren aburuz ezin
zaio muzin egin errealitate ho-
rri eta norabide berean lanean
jarraitu beharra dago: «Emaku-
meen futbolak gora egin du az-
ken urteotan. Azpiko mailetan
gero eta neska gehiago daude,
taldeek gero eta garrantzi han-
diagoa ematen diete eta lan hori
guztia hemendik urte batzuetara
igarriko da maila gorenetan».





Hernaniko eskola desberdinek Eskola Kiroleko Herri Proiektua daukate martxan. Bi ardatz dauzka: hezkidetza eta euskara. Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS

ESKOLA KIROLEAN PAREKIDETASUNA LORTZEKO BIDE BERRIAK JORRATUZ

«Kirola egitean neskak kasu askotan gutxietsita geratzen dira. Gizartearen joera dela-eta, mutilak kirol desberdinetan garatuago iristen dira etxetik eta kaletik. Neskak aldiz, ez, eta, ondorioz, ez dira ausartzen kirola praktikatzera. 'Ez dakit' eta horrelakoak esaten dituzte», Maite Lizeagaren hitzak dira horiek, Hernaniko Langile ikastolako Eskola Kiroleko koordinatzailearenak. Aurretik kargu berean jardun zuen Mila Apezetxea ere norabide berean mintzatu da: «Neskek ikastetxean mutilekin jokatzeko dute jarduera irakasleok bideratzen dugunean; haien kabuz gutxi batzuek baino ez. Txarrak direla esaten diete eta ausartenean baino ez dute adorea mutilekin aritzeko, oso gutxi izaten dira. Kate bat da: txarrak diren ustea barneratzen dutenez ez dira ausartzen eta ausartzen ez direlako baloia datorkienean buelta ematen dute. Hori aldatu beharra dago».

Egoera hori, batik bat, jolas garaietan islatzen omen da: «Ikastoletako espazio handienak kirolaren inguruan erabiltzen diren horiek dira –pilotalekua, futbol zelaia....– eta hor mutilen presentzia askoz handiagoa da. Neskak, aldiz, bazter eta txokoetan geratu ohi dira dantzak, koreografiak eta bestelako gauzak egiten. Askok esango dute hori haien

hautua dela, baina guk ez dugu hori uste, izan ere, egun batzuetan nire taldea bakarrik izaten da jolas garaian eta egun horietan neska gehiago ausartzen dira mutilekin jokatzera, jende gutxiago eta ezaguna dutelako, eta badakitelako testuinguru horretan akatsak errazago onartuko dituztela klasekideek. Horrek erakusten du nahia badagoela», argitu du Lizeagak.

Kirol heziketaren alor garrantzitsua eta funtsezkoa da gaztaroan neska-mutilek kirol desberdinak ezagutu eta praktikatzeko aukera izatea, ondoren libreki kirol modalitatearen bat praktikatzeko jarraitu nahi duten erabaki ahal izateko. Kirol heziketa hori bi ardatz nagusiren gainean irudikatzen dute Hernanin: euskara eta parekidetasuna, hain zuzen. Lehenengo oinarria nahiko aurreratua izanik, bertako ikastetxeei bigarrena gauzatzeak sortzen dizkie buruhaustek orain.

Hernaniko ikastetxeek gaia sakon hausnartu ostean eskola kirolean norabide aldaketa bat ezinbestekoa zela erabaki eta neskak ahalduzko oinarri sendoak jartzea erabaki zuten. Hala, duela hamabi urte abian jarri zuten Eskola Kiroleko Herri Proiektua ordura arteko ereduaren errotik aldatuz. Benjamin mailan –3. eta 4. maila– ume guztiek nahasian jarraitzen duten arren, alebin

mailan –5. eta 6. maila– dator berrikuntza, non neskek eta mutilek aparte jolasten duten. «Guk pentsatzen dugu parekidetasuna lortzeko bakoitzak bere aldetik indartu behar duela gero besteekin aritu ahal izateko, izan ere, batzuen eta besteen abiapuntua desberdina izaten da. Normalean, neskek ez dituzte kirol gaitasun berberak izaten, neskek trebetasun horiek ez dituztelako landu; horrek ziurtasun eza sortzen die. Beraz, neskek beraien bidea egin behar dute behar bezala garatzeko», kontatu du Lizeagak. Helburua desoreka egoera hori orekatzen saiatzea da. Horretarako argi dute konpentsatu egin behar dela eta neskei erraztasunak eman behar zaizkiela. «Neskak ahalduzko egin behar ditugu, beldurra kendu eta animatu egin behar ditugu kirola praktikatzera. Horrela, haien artean indarturik ateratzen badira, konfiantza handiagoa izango dute mutilekin espazioak partekatzea egokitzen zaienerako», dio Apezetxeak.

Hernaniko ikastetxe guztiak –La Inmaculada salbu– eta Astigarragako Herri Eskola daude sartuta proiektuan. Udalak ere parte hartzen du, baita Orona Fundazioak ere –diru partida bat eman zuen eskola kirola bultzatzeko–. Herri proiektua izateak badakartza onura batzuk, izan ere, geroz eta neska

gehiagok ematen duten arren izena, oraindik orain desoreka handia dago. Hori dela eta, zenbait kiroleko ikastetxe batzuetan ez da izaten nahiko neska taldeak osatzeko, eta gainerako ikastetxeetakoekin elkartuta arazoa konpontzen dute: «Mutilen %80k hartzen du parte eskola kirolean eta nesketan kopurua ez da %30era iristen», zehaztu du Apezetxeak.

Eskola kirola astean hiru aldiz izaten dute haurrek, astean zehar bi egun eta larunbatetako hitzordua. Benjamin mailan duten eskaintza oso zabala da eta denetarik probatzen dute: talde kirolak, banakako kirolak, eta, baita, hainbat ekintza osagarri ere: hala nola, mendi orientazioa, dantzarekin lotutako jarduerak batzuk, eskalada... Alebinetan ostera, kirol zehatzagoak praktikatu ohi dituzte.

Halaber, umeengan parekidetasunaren kontzientzia pizteari eta gaiaren gainean hausnartzeari berebiziko garrantzia ematen diote eta tutoretza orduetan noizbehinka gaia lantzen dutela azaldu du Lizeagak: «Galdetzen diegu zenbat neska eta mutil ibili diren, neskei galdetzen diegu zergatik ez duten jokatzeko... Garrantzitsua da umeak egoeraz jabetzea eta elkar errespetatzen ikastea». Bestalde, gurasoek hasieran ereduaren gainean zalantzak zituztela onartzen dute, baina, orain, oro har, ekimenaren aldekoak omen dira: «Gurasoek gure ereduaren gainean galdetzen digute, baina hobe beharrez. Askorentzat egoera kontraesankorra zen uste zutelako berdintasuna denak batera aritzea zela, baina arrazoiak azalduta ulertu dute zenbait kasutan desberdin jokatzeko beharrezkoa dela parekidetasuna lortzeko», kontatu du Apezetxeak.

Hamabi urte hauetan izandako garapenaz galdetuta, nahiz eta datu objektiborik ez izan, burututako lana pixkanaka fruituak ematen ari dela uste dute eta ziur dira bide egokia hautatu dutela: «Gero eta neska gehiago animatzen dira kirola egitera eta haien kirol jarduna denboran gehiago luzatzen dute; lehen eskola kirolean hasten ziren neskek segituan uzten zuten, eta, orain berriz, jarraitzen dute. Gizartearen ikuspegia ere aldatzen ari da».

Dena den, azpimarratzen dute oraindik parekidetasuna lortetik urrun daudela eta lan asko dutela egiteko. Halere, bidea egiteko formula topatu dutelakoan lanean tinko jarraitzeko asmoa dute.



Jatorrira buelta etxaldea salbatzeko


Er-raza da jakitea Karrantzako Vista Alegre baserriaren izena nondik datorren. Matienzo auzoan kokatua, Karrantzako harana ia osorik ikus daiteke bertotik. Euskal Herriaren mendebaldeko muturrean kokatutako haran honek abeltzaintzan tradizio handia du. Azkenengo hamarkadotan intentsifikaziorako joera izan du, larreak alde batera utziz eta ukuiluratzte intentsiboaren alde eginez.

Cesar eta Jose Antonio, Valera anaiak, abeltzainak izan dira betidanik. Beraiek behiak ukuiluratzeko bidea egin zuten, baina baita larreetara bueltatzekoa ere. «Nahiz eta esne gehiago ekoizten genuen, ustiapenaren kontu ekonomikoak gero eta kaxkarragoak ziren; behiek pentsu gehiago kontsumitzen zuten, albaitaritza tratamendu gehiago eman behar genizkien eta esnea orain dela 30 urte bezala ordaintzen ziguten, gaur egun ere gertatzen den bezala. Ondorioz, itzulerako bideari ekin genion, desintentsifikaziora, helburua kalitatean jarritz kopuruan baino. Aldi berean, gure produktuaren balio gehigarria bilatzeari ekin genion. Ziurtagiri ekologikoaren lorpena hasieratik planteatu genuen, gurea bezalako kalitatezko produktu batek behar duen bermea izateko».

Jada hamabost urte pasa dira desintentsifikazioaren bideari ekin ziotenetik. Emandako lehenengo pausua ganaduaren elikadura pentsuan oinarritzetik bazkan oinarritzera igarotzea izan zen. Orain dela bospasei urte behi kopurua murrizten joan ziren, jezten zituzten 45 behi frisoietatik 25 burura igarota. 2011ko apirilean ENEEK-ko ekoizleen erregistroan izena eman zuten, eta, urte bereko abuztuan, gaztandegia martxan zegoen. 2013tik, Vista Alegrek ekoizpen ekologikoaren ziurtagiria du.

TALDE LANAREN GARRANTZIA

Prozesuan Helen Groome Cesarren bikoitekidearen presentziak eragina izan zuen. Helenek hogeitaz urte baino gehiago egin zituen EHNE Bizkaia sindikatuan lanean, non transgenikoaren aurkako borrokan Euskal Herriko aurpegi ezagunenetarikoa



Karrantzako Matienzo auzoan dagoen Vista Alegre baserrian hamabost urte dira desintentsifikazioaren bideari ekin ziotela. Gustura daude egindako apustuarekin.
GAUR8

bihurtu zen. Emakume ingeles honentzat oso pozgarria izan da etxaldea bizitako desintentsifikazioa, gaztandegiaren erakitztea eta zuzeneko salmentarako sarearen gauzatzea bertatik bertara ikustea. «Horrenbeste urtez eredu agroekologiko baten beharra sustatzen egon eta gero, laneko arropa jarri, ekintzara pasatu eta proiektuak funtzionatzen duela ikusteak poztasun handia sortzen dit».

Vista Alegrek taldea Alexek eta Cristianek osatzen dute, hau da, Jose Antonioren semeek. Biak ala biak haraneko gazteek bizi duten langabezia egoera lazarriaren ondorioz batu ziren egitaspora. Vista Alegren bokazioagatik ez daudela onartzen dute, baizik eta «zerbait egin behar delako». «Egia esateko ganadua oso esklaboa da, goizeko zazpitan hasten gara eta gaueko zortzietan bukatu. Hilabeteetan hiru egunez libratzen dugu bakarrik eta urteetan bi asteko oporrak besterik ez ditugu. Lagunek egin ditzaketen gauza askori uko egitea suposatzen digu horrek. Hori bai,

lana dugu behintzat, gure lagun askok ez bezala. Egia da ere gure produktua oso ona dela entzuteak poz handia ematen digula».

ALDAKETA

Behien osasun egoera adierazten duen zerbait badago, hori beren esnea da. Vista Alegren hainbat analisi egiten dituzte hileroko abelburuen garapena gertutik kontrolatzeko. Emaitez (beraien web orrialdean kontsulta daitezkeenak) desintentsifikazioaren ostean esnearen ezaugarrietan emandako aldaketak islatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, oraindik bidea egiteke dutela adierazten dute, «maneu erabat ekologikora pasatzean parametro aldaketaren bat ikusi dugu. Adibidez, zelula somatikoen presentzia [esnean ager daitezkeen zelulak] gorabeherak egon dira, nahiz eta maila egokietan mantendu diren. Behien organismoa elikadura berrira edota antibiotiko faltara oraindik egokitu ez delakoan gaude».

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Tratamenduen beharra aldatu den beste gauza horietako bat da. Ekologikoan ekotzi baino lehen mamitiak oso ohikoak zirela onartzen dute; «oraindik ere ematen dira, baina ez dira han zitalak eta prozedura sinpleekin trata daitezke. Produzio intentsiboa egiten genuenean, mamitiak askoz ere zitalagoak ziren. Nik uste mamitiak elikaduran proteina gehiegi egotearen ondorio direla». Abereen eguneko anoa gehiegizko proteina kopurua saihesteko, transgenikoak ekiditeko eta baita arrazoi ideologikoengatik ere Vista Alegreko pentsuak ez du sojarik. «Soja ekologikoa Amerikatik edota Italia ingurutik dator, urrutitik».

ERALDAKETA PROIEKTUA

Gaztandegia Vista Alegre baserriaren proiektu berriaren zutabeetako bat izan zen. Bere diseinurako Jose Luis Martin aholkulariaren zerbitzuak kontratatu zituzten. «Proiektua zehazten asko lagundu zigan, baita behar ez ziren gastuak ekiditen ere. Esaterako, bere aholkuz erosi genuen pasteurizaziorako 400 litroko erabilerara anitzeko upela, nahiz eta saltzaileak upel handiagoak saltzen saiatu. Martinek ere azpimarratu zigun esneak ahalik eta aldaketa gutxien jasan behar duela, eta, horregatik, homogeneizagailu bat erosteari uko egin genion. Zentzu berean, esnearen zirkuitu guztiak grabitateari esker funtzionatzen du, ponpa bakarra esne pasteurizatua ontziratzeko erabiltzen duguna da. Izan ere, lehengaiaren [esnearen] kalitatea gaztaren eta jogurtaren kalitatearen erantzule nagusia izango da. Gure behiek goi mailako esnea ematen dute, ez dauka zentzurik beharrezkoak ez diren prozesuak gehitzea, horiek esnearen kalitateari negatiboki eragingo bailiokete».

Ez dute ezkututzen gaztandegia eraikitze inbertsio gogorra egin behar izan zutela. «Gure aurrezkiak sartu ditugu hemen, bankuen zain egon gabe. EHNE Bizkaiak aholku onak eman zizkigun eta diru laguntza onak izan genituen. Oso garrantzitsua da, baita ere, esku trebea izatea [Cesar eta Jose Antoniok duten moduan], makinaria zure beharrezanetara egokitzeko».

Beraiena bezalako proiektu batean produktu eskaintza zabala izatearen garrantzia azpimarratzen dute. «Guk lau gazta



mota egiten ditugu [freskoa eta biguna, esne pasteurizatuarekin; leuna eta ondua, esne gordinarekin], jogurta hiru formatu ezberdinetan ontziratzen dugu eta esne pasteurizatua ere saltzen dugu. Zenbat eta produktu gehiago izan, salmentarako aukera gehiago dituzu, gustu ezberdinak dituzten pertsonengana hel zaitezkeelako».

Vista Alegrek banaketa sare oso landua dauka, Nekasarea eta Lurrekin moduko kontsumo taldeak barnebiltzen dituenak, baita denda txikiak, azokak eta jatetxeak ere. «Gure produktuak Bizkaiko 75 dendatan, zazpi kontsumo taldetan, zenbait jate-txetan eta noizbehinkako azoketan banatzen ditugu. Gure esperientziagatik ikusten dugu merkaturatzeko bideak nahiko mugatuta daudela: gurea bezalako beste bost ekoizpen egongo balira antzeko esnekiak ekoizten produkzio hori guztia merkaturatzea zaila izango litzateke uneotan. Instituzioen aldetik hautu argia egon beharko litzateke produktu ekologikoak kontsumitzaileen artean zabaltzeko. Oraindik ezjakintasun handia dago».

Kontsumo taldeen zeregina azpimarratzen dute, bereziki ekoizpen proiektu baten hasieran, gaztandegia prest dagoenean baina oraindik osasun baimenik gabe aurkitzen den bitartean adibidez. «Osasun baimena izateko instalazioa martxan jarri behar da, analisiak egin ahal izateko. Baina erregistrorik ez bada, ezin da produktua dendetara eraman, ezta merkatuetara edo azoketara ere. Zer egiten duzu produktu horiekin? Nekasareako kontsumo taldeek fase horretan asko lagundu gintuzten».

Nahiz eta esperientzia bide onetik doan, ekoizpen ekologikoak salbuespena izaten jarraitzen du haranean. Batzuetan lupa baten begiradapean sentitzen direla onartu digute: «Jendea zain dagoen sentsazioa duzu, Vista Alegren zer pasako den zain. Kosta egiten zaigu ulertzea zergatik ez den ekologikoa bezalako kalitatezko ekoizpen baten alde egiten. Karrantzarentzat aukera egokiena izango litzateke».

www.vistaalegrebaserria.com

ENEEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua

LAZTAN ARTEKO LASAIA

Kilimak, laztanak eta ferekak erlaxazio terapia bihurtu dituzte Gasteizen


 **JENDARTEA** / Maialen Arratibel Garcia

Duela hiru urte pasatxo ireki zitu-
en atea Cosquillearte izeneko terapia zentroak. Gasteizko bihotzean, Florida parkearen magalean egiten du lan Esther Saenz de Argandoña gasteiztarak. «Nork ez ditu kilimak maite?», galdetzen du jostari. Hain zuzen, galdera horren bueltan sortu zen oraindik ere hain ezaguna ez den terapia. «Kilima terapia» deitzen dio berak, baina, azpimarratzen du kilima horiek fereka gisa ulertu behar direla. Ez dira, beraz, bezeroa barrez leherraraziko duten kilimak, baizik eta lasaitasunera bideratutako laztan kateatuak. Munduan ez omen dago antzeko beste lekuri. Saenz de Argandoñaren arabera, kilimetan oinarritutako masajeak ematen dituen «zentro bakarra» da Gasteizkoa. Aurrez, Madrilen irekia zuen beste zentro bat, baina, «arazo pertsonalak» medio, atak itxi behar izan zituen.

Cosquillearte izenak berak ematen ditu pista batzuk. Kilimak emate hori, terapia gisa ulertuta betiere, artetzat du negozioaren jabeak. Saenz de Argandoñak azaltzen duenez, masaje teknika «oso zehatzak» erabiltzen dituzte bezeroak erlaxazio maila altuenera eramatea helburu. Hala, bi atal ezberdin lantzen dituzte laztanen bidez; alderdi fisikoa batetik, eta, bestetik, emozioei lotutakoa. Biak, ordea, aldi berean lantzen dituzte. Finean, gorputz osoko gihar ezberdinetan pilatutako tentsioak askatzen saiatzen da masajista. Berekitasuna, ordea, mina ematen duten puntuak ez ukitzean datza. Nola lortzen da, bada, aipatu tentsioak ezabatzea? Saenz de Argandoña terapeutak dioenez, endorfina izeneko hormona da lasaialdira aldaketa baimentzen duen giltza. Endorfina, haren esanetan, “zoriontasunaren hormona” bezala eza-
gutzen dute askok.

Eskuak eta besaurreak pertsonaren azalarekin kontaktuan jarritik, burmuina limurtzea lortzen da, honek endorfinak sortitzen. Hala ere, argi utzi du

Eskuak lan tresna eta kilimak lehengai. Horiek besterik ez dituzte behar Cosquillearte izeneko terapia zentroan hurbiltzen denari lasaitasun tarte bat emateko. Gasteizko erdigunean kokatuta, bakarra omen da mundu osoan gisako zerbitzuak eskaintzen. Esther Saenz de Argandoñaren gidaritzapean bete ditu lehen hiru urteak.



Masaje teknika oso zehatzak erabiltzen ditu Esther Saenz de Argandoñak bezeroak erlaxazio maila gorenera irits daitezen.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Cosquillearteko sortzaileak bertan ez dutela norbanakoaren estimulazioa bilatzen, baizik eta erlaxazioa. Horregatik, zin egiten du ez duela oraino inork loak hartu, fereka saioak iraun birtartean. Izan ere, terapiaren xedea ez da bezeroa lo gelditzea, «kontziente dagoela, trantze egoera batean sartzea» baino. «Loaldi kontziente» deitu dio terapiaren sortzaileak.

Terapia bera eta masajearen teknikak Saenz de Argandoñak sortutakoak dira, beste zenbait masajista eta lagunekin batera. Lau hilabete behar izan zituzten buruan zuten horri forma emateko: «Saioz saio, lortu nahi genuen horretara hurbiltzen joan ginen».

KRISIARI BIZKAR EMAN NAHIAN
«Gogorra». Hala definitu du Esther Saenz de Argandoñak negozioa ireki zuenetik gaur arte egindako bidea. Izan ere, krisi ekonomikoak bete-betean jo zuen garaian otu zitzaion enpresari gasteiztarari Cosquillearte martxan jartzea. Eta dioenez, ez da erraza izan zentroa bizirik mantentzea. Lan horretan, ezinbesteko izan du bere burua ezagutzera eman eta marketin bide ezberdinak jorratzea. Besteak beste, hiriko beste saltoki txiki batzuekin izandako elkarlan saio anitzak nabarmendu ditu. Horiei esker, ohiko bezero ez direnengana iristeko parada izaten duela dio.

Salatu du, ordea, elkarlanean prestatzen dituzten ekitaldiek «sostengu txikia» jaso izan dutela Gasteizko Udalaren aldetik. Nahiko luke espazio publikoak erabiltzea, horretarako «pentsaezinezko» diru kopuruak ordaindu gabe.

«Biziraupena» da etorkizunera begirako erronka nagusia. Horretarako, «orain arteko bideari eustea» besterik ez dagoela onartzen duen arren, Saenz de Argandoñak laguntza handiago eskatzen die udal instituzioei. Antzeko beste zentro bat irekitzea du amets, baina, jakin badaki «diru inbertsio handia» suposatuko liokeela horrek, eta, gaur-gaurkoz, ez du «bideragarririk» ikusten.

{ koaderno } Iker Barandiaran

Orri horiak

Orpor usaineko egun hauetako batean lankide ohi batekin hondartzan egin dut topo eta bere irakurzaletasuna ezagututa, eskuartean dauzkan liburuez galdetu diot. Aurreikusi bezala, euskal argitaletxe batek kaleratu berri duen euskal idazle bizidun baten euskarazko lanaren berri eman dit. Ez nuen gutxiago espero, eta, gainera, primeran iruditu zait. Ez naiz ni *best seller* zalea, eta, bizkarra ematen diet, egunen batean besterik ezean horiek agertuko direla jakitun. Eta aitortu behar dut eskertzekoa dela euskal ekoizpen berrienari buruzko lehen eskuko informazioa jasotzea, babestu beharko bagenu ere, hainbeste ahazten duguna.

Horra arte ondo. Azken finean hondartzako toalla eta dutxa arteko elkarrizketa kasual bati ezin zaio zuku handirik eskatu. Eta halako batean nik etxeko apaletan irakurri gabe ditudan liburuetatik berreskuratutako “Elkartasun taupadak” erakutsi diot, Ardi Beltzak 1999an kaleratutakoa. Horra bere erantzuna: «Hori aspaldikoa da!», erdi kopetilun. Elkarrizketa ez da askoz gehiago luzatu, norberaren umeak argudio.

Azkenengoa, berriena, freskoena, pil-pilean dagoe-na lehenbailehen kontsumitu eta, batez ere, horren berri emateko joera –eta agian premia– daukagu. Eta ni ere tarteka adi egoten naiz irte-ten denari, baina ez diot inola ere bizkarra ematen iraganean sortu edo kaleratu denari; eta are eta gutxiago liburuei. Uler dezaket diskoen kasuan kantuak zuzenean ikusi eta entzuteko nahiak bultzatzea bat baino gehiago bizi eta aktibo dauden sortzaileei arreta berezia ematera. Baina liburuek oso gutxitan dute iraungitze data. Denbora falta eta aukeraketaren ondorioz utz ditzaket apaletan lasai, baina horrek ez du haienganako interesa txikitzen.

Hala gertatu zait orain dela hamasei urte –argitaratu zenean– eskuratu nuen “Elkartasun taupadak” liburuarekin, irakurri gabe nuena eta eskuotan dudana. Idazkera apala badu ere, hainbat lagunek modu erabat autonomoan bestelako baliabiderik gabe baina ilusio erraldoiarekin egindako lorpenak, moduak eta zergatiak azaltzen ditu. Itoitzen Aldeko Solidarioek eta beste batzuek egin zuten antzera, euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko eta Espainiar legedia bete zedin eskatzeko protesta ekin-tza sinboliko, erabat baketsu eta ikusgarriak egin zituzten; tartean *giralrilla* Sevillan ospatutako Nazioarteko

Atletismo Txapelketaren irekiera ekitaldian, Olentzero espetxeetara igotzen saiatu zenekoa edota Esteban Esteban Nieto ospitalean “bisitatu” zutenekoa. Testigantzek erakusten digute orain dela hogeitau urte gizarteratuta eta alderdien aldetik konpromiso handiagoa zuen gai batek bere horretan jarraitzen duela, gure bultzada nahikoa ez delako eta alderdiek ez dutelako babestu nahi.

Eta liburu honek balio digu ere, argitaletxeari erreparatuz, gogoratzeko Ardi Beltza izeneko proiektu informatibo bereizgarri bat existitu zela, Espainiako Estatuan parekorik ez zuena eta “Egin” egunkariko *Equipo de Investigación*-eko hainbat kidek, Pepe Reik tartean, sortu zutena; eta Garzonek itxi ostean, “Kale Gorria”-k ordezkatu zuena. Proiektu hauek jaio ziren epaileek gauzatu-tako “Egin”-en itxierak bultzatuta, eta ez dago soberan gogoratzeko “Egin” egunkarian eta izen bereko irratan ardurak izan zituztenetako batzuek urte ugari egin dituzte-la espetxean proiektu komunikatiboak bultzatzearen. Gainera, batzuek kartzelan jarraitzen dute oraindik.

Aurrera begira bai, beti! Iraganarekin eta nostalgiarekin itsutu ez! Baina izan dezagun presente pasatakoa, hortik ikasi eta perspektiba zabalagoa izan dezagun

Ziur nago gertaera horietatik hogeitau urte eskas pasa badira ere, azken *hype*, tendentzia edo erresistentzia mugimendua noiz sortuko den adi daudenetako askok ez dituztela gure historiaren iragan hurbileko pasarte horiek ezagutuko. Aurrera begira bai, beti! Iraganarekin eta nostalgiarekin itsutu ez! Baina izan dezagun presente pixka bat pasatakoa, hortik ere ikasi eta perspektiba zabalagoa izan dezagun.

Zertaz ari ginen? A, bai, lankide ohiaz, literaturaren garrantziaz, eta liburuek guk deskubritzeko esperoan bere baitan gordetzen duten guztiaz. Uda, gainera, garai aproposa da zer garen –gatzez edo izerdiz blaituak–, nondik gatozen –gelditzeko parada hartu nahi izaten ez dugun egunerokotasun erotik– eta nora goazen –freskatzera edo erlaxatzera– jakiteko. Eta, zergatik ez, bada, urtean zehar ziurtasun gehiagorekin zapaltzeko, oinak jartzen ditugun hareak edo lurra apurren bat altxatzea? •

«Sexuaren inguruko arrisku, miseria eta beldurretatik, ezinezkoa da inor heztea»

Sexu hezkuntza me-
rezitako tokia aurki-
tzen ari den hone-
tan, sexualitatea
adin tarte guztietan
landu beharreko zer-
bait dela ulertzen ari garen ga-
raiotan, hutsuneak ere egon ba-
daude oraindik. Arrakalak
hezkuntzan, arrakalak gizartean
eta arrakalak norbanakoen bu-
ruetan, batez ere. Beldurak, lo-
tsak, “zer esango dute” horiek
guztiak...

Bada, ordea, sexualitatearen
inguruko mamu erraldoi hori
izutzeraz datorrenik, zentzuga-
bekeria horiek guztiak irauli eta
normaltasuna bilatzera etorri
denik. «Hobe da malgu izatea,
gogorra hautsi egiten da», dio
kantu batek. Hari horri tiraka
aritu da solasean GAUR8 Gas-
teizko Emaize Sexologia Zentro-
ko kideekin.

«Sexualitatearen inguruko
etengabeko lanketa bat da he-
men defendatzen eta jorratzen
duguna», azaldu du Lurdes Pe-
rez Jimenez Emaizeko sexolo-
goetako batek. «Horrek esan
nahi du sexu heziketa jaiotzatik
bertatik hasten den zerbait be-
zala ulertzen dugula». Jaiotzetik
aurrerako lehen urteetan, hau-
rraren zaintzan dihardutenen
keinu txikienetik hasita egiten
den balorazio handienera, ha-
ren ustetan «guztiak du berebi-
ziko garrantzia».

Egiten dugun guztiak dara-
mala mezu bat bere baitan, ez-
kutuan bada ere. Hori argi dute
Emaizen, eta horri begira saia-
tzen dira hezten. Hezkuntza ez
dadin izan unean unekoa. Hala,
«adin guztietan zehar landu be-
har da, ezinbestez», berresten
du Perezek, irmo. Hezkuntza
hori, beraz, ez dute ulertzen
haur edo nerabeei zuzenduta
soilik ematen den zerbait beza-
la, baizik eta zeharka baita gu-
raso zein irakasleekin ere landu
beharreko irakasgai gisa.

1990. urteko LOGSE legeak
derrigorrezko hezkuntzaren cu-

EMAIZE SEXOLOGIA ZENTROA

SEXU HEZIKETA, BIZITZA GUZTIRAKO IKASGAIA

Maialen Arratibel Garcia



riculumak sexu heziketa bai-
tan har zezan onartu zuen.
Emaizeko langileek salatu izan
dute lanabes gabeziak eta pres-
takuntza ezak nahasmendua
sortu duela ikastetxe askotan,
eta azkenean gaia albora utzi
izan dela. Gaur egungo egoeraz
galdetuta, ez dirudi aurrerapau-
so nabarmenik eman denik.

«Sexuaren inguruko forma-
kuntzak zerbait zeharkakoa be-
har du izan, hau da, eskoletako
irakasgai guztietan lantzen den
zerbait, horietako zenbaitetan
maila txikiagoan bada ere», na-
barmendu du Raul Marcos psi-
kologo eta sexologoak. Emaizen
ulertzen dute eginkizun hori ez
dagokiola arduradun bakar bati,
baizik eta sexu heziketak hez-
kuntza curriculum osoa zipriz-
tindu behar duela. Hala ere,
onartzen duenez, teorian «oso
polita eta eraginkorra» ematen
du, baina, gero, praktikan, ez
omen du horren aplikazio erra-
za. «Matematikako irakasle ba-
tek, esaterako, seguru aski ez du
ikusiko nola egin dezakeen bere
ekarpena, sexualitatearekin lo-
tuta suerta litezkeen arazo edo
zalantzak ez dituelako bere ira-
kasgaiarekin lotu ere egiten. Eta
horrela ia irakasgai guztiekin».

Lourdes Perezek ekintza txi-
kiei ematen die garrantzia. Izan
ere, maiz, ohartu gabe transmi-
titzen ditugu balio heteropa-
triarkalak, matxistak... Hala,
egin edo esaten ditugun horiei
kontu handiz erreparatu behar
zaiera uste du; gazteei hitz egi-
teko moduak, jolasteko erak, el-
kar ukitzekoak, isiltasunak...
guztiak darama mezu inplizitu
bat. «Denok sartzen dugu han-
ka, baina, huts horiek ez daite-
zela izan hausnarketarik gabe-
koak», dio. Izan ere, pentsa
ezinezko eragina dugun agente-
ak gara, eta gugandik hasi behar
da hausnarketa. Zer da haurrari
transmititu nahi dioguna? Eta
helburu horien bueltan, komu-
nitateko partaide guztiak aritu
behar dira elkarlanean, Emaize-
koen arabera.

BELDURRETIK HEZTEN

Marcosek azaldu du orain arte
sexu hezkuntzan landutako
guztia prebentziora begira egon

dela; haurdunaldia, sexu bidez-
ko gaixotasunak, indarkeria, eta
abar. Eduki gehienak beldurre-
tik transmititzen dira, eta ho-
rrek agerian uzten du bestelako
ikuspegi baten beharra. «Sexua-
ri diogun beldurretik ezinezkoa
da inor heztea. Ezin dugu sexu
heziketa egin, sexualitatearen
arrisku eta miserietatik. Eta
gaur artean behintzat, eredu
hori izan da jarraitu izan dena.
Guk askatasuna izaten dugu
edukiak nahi bezala lantzeko
ikasgeletan, baina badirudi ez
baduzu antisorgailuen gaia tra-
tatzen ez zarela zure lana ondo
egiten ari». Perspektiba «zahar-
kitu» horrekin hautsi behar de-
la iritzi dio. «Planteamendu ire-
kia izango duen hezkuntza
sisteman dago etorkizuna».

CURRICULUMA HANKAMOTZ

Ane Ortiz Ballesterosek sexolo-
gia ikasketak egin zituen irakas-
le titulua eskuratu ondoren eta
Emaizen dihardu egun. Bere us-
tez, espainiar Estatuan sexu
hezkuntzari eskaintzen zaion
arreta «lotsagarria» da Europa-
ko beste herrialde batzuekin al-
deratuta. Baikor begiratzen dio,
ordea, Derrigorrezko Eskolaldi-
rako Euskal Curriculumari. Izan
ere, honek beste hezkuntza cu-
riculum batzuek baino lanketa
handiagoa eskaintzen dio se-
xualitatearen adarrari. Bestal-
de, gaineratu du eskola gehie-
nek gaiarekiko ardura
erakusten duten arren, gehiene-
tan ikastetxetik kanpoko profe-
sionalak eramaten dituztela se-
xualitate saioak egiteko. Eta
hori nahikoa ez dela uste dute
Emaizen. Gabezia hori indartu
asmoz eskaintzen zaie forma-
kuntza irakasle, hezitzaile zein
sendiei. Izan ere, ikasgelan tarte
batez sexuaz aritu arren, gazte-
ak nekez barneratuko du ezer
gainontzeko espazioetan ez ba-
du bertan landutakoa errealita-
te gisa ulertzen.

Azpmarratu nahi izan du es-
kola asko daudela oso argi dute-
nak sexu hezkuntza ez dela zer-
bait noizbehinka eta tantaka
eman behar dena. Horregatik
argi dio: «Ezin daiteke orokortu.
Orokorkerietan erortzeak ikas-
tetxe askok urteetan egindako



Emaize zentroko kideak: Lourdes Perez, Ane Ortiz, Inma Ruiz de Lezana eta Raul Marcos. Argazkiak: Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

lana lausotuko luke-eta». Gainera, ikusten ari dira «azken urteotan jarrerak aldatzen» ari direla, «jendea hasi baita ulertzen pentsaera hertsia ez dakarrela ezer onik».

IKTEN ZURRUNBILOAN

Beste hari mutur bati heldu nahi izan dio Marcosek. Izan ere, gaur egun inor gutxi bizi da teknologia berririk gabe inguruan. Eta uste du ezin zaiola inolaz ere bizitzen ari garen aldaketari «muzin egin». Horregatik, teknologia berrien gaiari eutsi eta «EnREDados» izeneko programa jarri zuten abian, Arabako Aldundiaren laguntzarekin.

Ane Ortiz, Raul Marco eta Ander Lertxundi ibiltzen dira ikastetxez ikastetxe doan programa ibiltaria lantzen. Izan ere, Ortizek uste du, gaur egungo sexu-heziketa ez litzatekeela zen-

«ENREDADOS»

laz jaio zen Internetek giza harremanetan duen eragina aztertu eta lantzea xede duen programa.

Gazte, hezitzaile zein gurasoei zuzendutako tailerrak egiten dituzte, Arabako Aldundiak diruz lagunduta. Nerabeei sareko komunikaziorako eta segurtasunerako tresnak ematea da helburua.



tzuzkoa izango informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) alboratu utzita. «Teknologia berri» izenez ezagutzen ditugunak bitarteko baitira hainbat eta hainbat arlo lantzeko.

Eta erreminta izateaz gain, Internetek harremantzeko espazio berri baten sorrera suposatzen du. Sare sozialak dira adibiderik argiena. «Sare sozialetan oso modu jakin eta zehatzetan jokatzen dugu eta horien arabera garatzen ditugu harremanak, ligatzen dugu, seduzitu, eta abar luze bat. Izan ere, belaunaldi berriek bertan egiten dute zaharragoek tabernetan egiten duguna. Tabernako barran ligatzearena ezohikoa bihurtuko da luze gabe [barreak]».

Hari horri tiraka, hezkuntza arloaz gain, ikusten hasi ziren «zenbaterainoko presentzia duen sareak bikotekideen ha-

rremanetan, esaterako». Espazio birtualek «nola antzu dezaket» harreman orekatu bat. Raul Marcosek azaldu digu: «Jabetu ginen geure burua horren inguruan trebatzeko beharraz: zeintzuk diren sare bidezko komunikazioaren gakoak, nola gertatzen diren interakzio horiek, zeintzuk diren arriskuak, zeintzuk abantailak, zeintzuk norbanakoaren ohiturak aldatzeko gaitasunak...» Eta jakin-min horretatik sortu zen arestian aipatutako «EnREDados».

Zenbat aldiz entzuten den teknologia berrien presentziak pertsonen gaineko kontrola nabarmen areagotzen duela. Eta hala, sare sozialen erabilera eta sexualitatea arriskuarekin lotu izan dira maiz... Kontrol hori, ordea, Emaizeko kideen arabera ezin daiteke ekidin. «Oinarritzko jarrerak eta erabilera ohiturak dira sakonean eta ezer baino le-

hen landu behar direnak. Horretan datza hezkuntza». Ane Ortizek nabarmendu du teknologia berriak, oro har, tresna bat baino ez direla. Eta tresnoi, norbanakoen erabilerak ematen die izaera bat edo beste. «Eguneroko bizitzan dugun pentsamolde eta jokatzeko erak areagotu eta bizkortu baino ez dituzte egiten sareetako baldintzek».

Ruiz de Lezanaren irudiko, intimitateak ere merezi du «askotan ematen ez zaion garrantzia». Izan ere, iruditzen zaio egungo gazte askok intimitatea ez dutela aintzat hartzen sarean ibiltzerako orduan, gainontzekoei bizitza pribatuko edozer erakusteari ematen diotela balio erantsia. Interneten intimitatea zaintze hori ere lantzen dute ikasgeletan.

IKTen bidez jasotzen duguna, askotan esaten da ez dela inondik ere errealista. Pornografia,



«Matematikako irakasle batek, esaterako, seguru aski ez du ikusiko nola egin dezakeen bere ekarpena, sexualitatearekin lotuta suerta litezkeen arazo edo zalantzak ez dituelako bere irakasgaiarekin lotu ere egiten. Eta horrela ia irakasgai guztiekin»

esaterako, edota emakumezko zein gizonezkoen itxurari buruzko mitoak. «Pornografia sexuaren zientzia fikzioa da», dio Marcosek, serio. Azaltzen du nola gazteei argi utzi behar zaien ez dela «inolaz ere egiazkoa» ordenagailuan aurki dezaketenen hori. «Ez da txarra pornografia kontsumitzea, baldin eta jakiten badugu zer den benetan ikusten ari garena». «Eskandalizatzeaz harago» joan behar du sexu hezkuntzak, dio Ruiz de Lezanak. «Saiatzen gara egunerokotasunean gerta daitezkeen horiek normaltasunez tratatzen eta azalpen bat ematen».

ESKAINITZA ANITZA

Formakuntzaz gain, beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen dituzte Emaize Sexologi Zentroan; sexu eta bikote terapia, eta sexu aholkularitza, besteak beste. Aholkularitza zerbitzua eskaintzeari duela hiruzpalau urte ekin zioten. Marcosek nabarmendu duenez, «estatistikarik ez» duen arren, 25-30 urte arteko «gizon asko» hurbiltzen dira laguntza eske, emakumezkoekin harremantzeko ezintasuna dela medio. «Arazorik ez duten pertsonak dira, lagunak dituztenak eta sozialki erabat gizarteratuta daudenak. Baina, apenas duten gaitasunik emakumezkoekin harremanetan sartzeko». Beldur kontua dela dio sexologoak, eta horri begira, gaitasunak sendotze aldera, teknologia berriak ere «oso lagungarri» izan daitezkeela.

Bestetik, terapietarako dagokienez, batez ere «desira falta» eta «sare sozialek eragindako arazoak» tratatzen dituzte. Sareak aipatzean, Whatsapp aplikazioaren erabilera eratorritako «krisiak» nabarmenduko lituzkete Emaiz zentroko kideek. Baina ez dute nahi «inolaz ere» Internetek izan dezakeen kutsu negatibo hori indartu. «Erabileraren nondik norakoak lantzean dago gakoa», berresten dute behin eta berriro.

«Heziketa indartu, askatasunez hitz egin eta tabuak apurtu». Helburu horiek erdiesteko lanean jarraituko dute aurrerantzean ere Emaizen.



TEKNOLOGIAREN ARRISKUAK ETA AUKERAK

Datu ofizialik eta estatistikarik ez dagoen arren, psikologia kontsultetan gero eta presentzia handiagoa hartu omen dute azken urteotan sare sozialek eta eskuko telefonoen zenbait aplikaziok, Whatsapp arrakastatsuek bereziki. Aditu batzuen esanetan tresna berri horiek ez dute hainbeste aldatu pertsonen harremantzeko modua, baina joera batzuk areagotu egin dituzte, kontrolarena kasu.

Whatsapp aplikazioa, esaterako, kontrolerako modu zorrotza bihurtu da. «Duela ordubete idatzi diot mezu bat, irakurri du eta ez dit erantzun. Zergatik? Zertan ari ote da? Zeinekin?». Bikote harreman askoren krisietan omen dago Whatsapp aplikazioa. Izan ere, sare sozialek eta teknologia berriak tarteko, normaltzat jotzen da une oro konektatuta egon beharra, bai lanagatik bai bizitza pertsonalagatik. Eta tresnok kontrolerako bitarteko eraginkorrak direnez, bikote harremanetan kontrol beharra duenak badauka nola ase bere ezina. Kontrolatzaileak orain bezala lehen bazeuden, baina lehen ez zuten Whatsapp aplikazioa eta beste bide batzuk

erabiltzen zituzten. Adituen esanetan, «duela hamar urte bikotearen poltsa edo kartera miatzen zen informazio bila. Orain, telefonoa. Moduak aldatu dira, baina mamia lehengo berdina da. Orain metodoak errazagoak dira».

Bestetik, bikotetik kanpoko harreman asko sare sozialetan bistaratzen dira. Norberaren bizitza pertsonaleko kontuak sarean zintzilikatzea erabat normala bihurtu da, eta, maiz, ahaztu ere egiten da pareta publiko batean ari zarela zure bizitzaren parteak erakusten. Eta akaso horietako batzuk ezkutuan nahi zenituela.

Teknologia berriek, baina, abantailak ere badituzte. «Noizean behin mezutxo bat bidal diezaiokezu bikotekideari zenbat maite duzun esanez. Horrelakoek harremana sendotzen dute», ematen dute aholkua adituek.

Bestetik, Internet sexu aniztasunaren aldeko tresna ere bada, baldin eta ondo erabiltzen bada. «Zure praktika sexual berdinak dituen jendea ezagut dezakezu eta ez zarela piztia arraro bat sentitu. Normalizazio tresna garrantzitsua da», nabarmendu dute.

Titular batek ez dioena

Koldo Sagasti

Iragan astean kolono israeldarrek 18 hila labeteko haur bat erail zuten, bizirik kiskalita, Zisjordaniako Duma herrian. Connecticuteko eskola batean edota Parisko egunkari batean hildakoek bezala, jaio berri palestinarrak ere izena zeukan: Ali Dawabsha; eta gurasoak, eta anaia. Horiek ere, larri zauritu zituzten israeldarrek oldarraldi ankerrean. Erasotzaileak, berriz, eragozpen handirik gabe itzuli ziren euren ondoko bizilekura, Maale Efraim koloniarra, atzean, biktimen etxeko paretetan, lelo mesianiko bat idatzirik utzita: “Bizitza luzea Mesia Erregeari”.

Gertakariaren ostean Benjamin Netanyahu berak gaitzetsi egin du ekintza te-

rrorista, horrela, modu generikoan, miss lehiaketetako hautagaiek munduan bakea desiratzen duten bezala, erailketan duen erantzukizuna zurituko duelakoan. Aliren hiltzaileak Israelgo Administrazioak sustatutako eta sustengatutako kolonia bateko biztanleak dira, Zisjordaniako kolonizazio estrategiaren abangoardia.

Hobari fiskal oparoak dituzte Israelgo Estatuaren partetik, okupazioaren lehengo lerroan izateagatik; babes militarra eta armak nahierara erabiltzeko baimena; bestelako israeldarrek baino hamar aldiz gutxiago ordaintzen dute uraren fakturagatik; azpiegiturak eta errepide sare pribatua dute Estatuaren kontura... ez dira te-

rrorista zoro bakartiak, Tel Aviveko bulego batean diseinatutako bide orri bat gauzatzearen arduradunak baizik. Eta terroristak badira, elikatzen dituen Estatua bera terrorista delako da.

Horregatik guztiagatik da bereziki gaitzesgarria “El Pais” egunkariak albisteari eskainitako titular epela: «Ume palestinar bat hil da eraso batean». Haur palestinarra ez dira berez hiltzen, erail egiten dituzte; eta hilketaren erantzulea ez da “eraso bat”, baizik eta eraso hori burutu duten kolonoak eta kolonizazio estrategia diseinatu eta sustatu duten arduradun politikoak. Titularrak asko uzten du esateke... eta dena esaten du. •

Erantzi

Mirari Martiarena

Ez naiz inoiz hondartzazalea izan. Edo behintzat hori sinestarazi izan diot nire buruari. Ez naiz inoiz eguzkizalea izan. Edo behintzat aitzakia hori erabili izan dut askotan. Inguaruak, telebistak, publizitateak... sinestarazi zidaten umetan gizona egoteagatik nire gorputza ez zela inon eta inori erakusteko modukoa. Ordutik beti ibili naiz tapatu, tapatu eta tapatu. Eta inork ez dit irakatsi ikasitako mezu horiek desikasten.

Gizenago edo argalago egon izan naiz, baina beti moxtaka edo, behin medikuak bota zidan bezala, “potolita”. Tripa, titiak, izterrak... handik eta hemendik nola disimulatu pasa dut bizitza erdia baino gehia-

go, nire gorputza gorrotatu eta nazka sentitzeraino. Kolore beltzeko jantziak dira nire armairuan zerbaitegatik nagusi: nire gorputza estilizatu edo argaltzeko. Berriz ere tapatu, tapatu eta tapatu.

Baina ikasi dut nire lehen etxea nire gorputza dela. Nire mailegu eta hipoteka garrantzitsuenak berarekin ditudala, ez dudala berarekin zorretan egon nahi. Nire gorputzarekiko interesak neronek zaindu behar eta nahi ditut. Ez dut beste gorputzik eta bertan biziko naiz hil arte. Ikasi dut lotsekin eta konplexuekin ez noala inora. Eta agian horregatik hasi naiz aurrean hondartzara edo igerilekura lasai joaten. Bikini koloretsu bat erosi dut lehen aldiz eta uste

baino erabilera handiagoa ematen ari naitzaio. Ikasi dut hondartzazalea izan naitekeela; eguzkia ez dudala baserriko belarrak ontzerako garaian bakarrik hartu beharrik, eta, nahiz eta eguzkitan egoteko sugandila sen hori ez izan, gustura egon naitekeela.

Urtetan nire gorputza estaltzeko erabilitako aitzakiak albo batera utzi ditut, nahi gabe nire buruari erantsitako zamak bidean utziz. Oraindik arropa beltz ugari dut armairuan, baina hori ere pixkanaka aldatzen ari naiz. Nire etxea jantzi eta apaintzen ikasten ari naiz, nire gorputza maitatzen, izan nahi dudana izan eta gustura bizitzeko. Lotsak eta konplexuak erantzi ditut gehiago ez janzteko. •



Txelo Ruiz Vazquez

EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Haririk gabe... Edonon...

Haria eta airea. Hasierako telefonoak sortu zirenean, kableak edo kobrezko hariak behar ziren aparatuak haien artean konektatzeko; eta zentralitak, telefonoen arteko komunikazioak harien bidez bidertzeko. Hala, hiri, herri eta landa eremuetan lanak egin behar izan zituzten beharrezko hari guztiak luzatzeko, telefonoak ugaltzearekin batera. Eta hariei eusteko zutoinak ere ugaltzen hasi ziren: egurrezkoak, porlanezkoak...

Irratia eta telebista sortu zirenean, airean zehar bidaiatzen zuten uhin elektromagnetikoak erabiltzen ziren entzule eta ikusleen gailuetaraino iristeko. Eta antenaz josi zituzten eraikinen teilatuak; eta mendietan ere jarri zituzten, airetik bidaiatzen zuten seinaleen hedapenari laguntzeko. Halako batean, baten batek komunikabide haien funtsa aldatzea posible zela pentsatuko zuen, eta etorkizunari begira esango zuen: «Airetik doana, haritik joango da; eta haritik doana, airetik joango da».

Horrela, komunikabideen iraultzari ekin zioten, eta egun ohikoa bihurtu dena sortu zen: hari bidezko telebista eta haririk gabeko telefonoak. Gaur egun, aukera guztiak ditugu erabilgarri eta bakoitzak ditu bere abantaila eta desabantailak. Era berean, ordenagailuak sareetan konektatzeko aukera ere bikoitza da: kable bidez (haritik) edo haririk gabe (airetik), wifi edo bluetooth bidez adibidez.

Informazioa eta energia. Baina hori guztia datuen edo informazioaren komunikazioaren ingurukoa da, hau da, datuak edo informazioa (soinuak, irudiak) dira harien bidez transmititzen direnak. Eta zer gertatzen da energiarekin? Izan ere, tramankulu elektriko edo elektroniko guztiek energia behar dute funtzionatzeko, hau da, energia elektriko hornitu edo “elikat” behar ditugu!

Horretarako ere bi aukera ditugu: kable baten bidez konekta ditzakegu aparatuak argindarra ematen duen entxufe batera, edo bateria bat sar dezakegu aparatuan bertan. Garbi dago baterien erabilpenari esker lortu dela aparatu asko eramangarriak izatea. Baina, horretarako, baterien inguruan hobekuntzak egin behar izan


dira industrian. Alde batetik, baterien tamaina gero eta txikiagoa izatea lortu da, eta, bestetik, haien ahalmena mantendu edo handitu da.

Bateria baten ahalmena (miliAmpere x ordu –mAh– edo miliWatt x ordu –mWh– unitateetan eman ohi dena) zuzenki erlazionatuta dago bateriak metatzen duen karga elektrikoarekin, eta kontsumitzen den kargaren alderantzizko proportzionala da kargak iraungo duen denbora: zenbat eta handiagoa izan aparatuaren kontsumoa, hainbat eta denbora gutxiago iraungo du bateriaren kargak. Hala ere, gero eta gehiago eskatzen diegu bateriei. Esate baterako, sakelako telefonoak gero eta adimentsuagoak dira, eta horrek berekin dakar energia gehiago behar izatea funtzionatzeko. Hori dela eta, baterien kargak gero eta gutxiago irauten du eta... zer egin behar dugu bateriarik gabe gertatzen garenean edo, hobe esanda, bateria kargarik gabe geratzen denean? Bada, entxufe bat bilatu eta, kablea duen kargatzailea erabiliz, bateria entxufatu eta kargatzen jarri. Hortaz, une horretan eramangarritasuna galdu dugu, entxufe bati lotuta egongo garelako. Are gehiago, gauden tokian agian ez da entxuferik

egongo, eta hor hasiko dira komeriak. Horregatik, kargatzaile arinak ari dira merkaturatzen, entxufearen beharrik ez dutenak: aparatuaren bateria kargatzeko bateria eramangarriak dira, etxean kargatzen direnak eta poltsan erabat kargatuta eramango ditugunak behar ditugunean erabiltzeko.

Beste aldetik, bateriak erabat kargatzeko behar den denbora ez da txantxetakoa. Oraingo pentsaezina da bateria bat kargatzea denbora laburrean; ordu batzuk behar dira gutxienez. Ikertzen ari dira hori hobetzeko amoz, eta publizitatean ikus daiteke batzuek esaten dutela haiek egin dako bateria 10 minutu inguruan kargatzen dela erabat. Baina oraingo ez daude salgai halako bateriak.

Energia airean? Askok hasi dira pentsatzen posible izan daitekeela bateriak airetik kargatu ahal izatea, energiaren wifi moduko bat sortuz. Izan ere, eremu elektromagnetikoz inguratuta gaude eta hortik energia elektriko erauz daiteke. Ziur aski, hori izango da arlo honetan ikusiko dugun hurrengo “iraultza”. Epe laburrean ez du ematen sistema komertzialik izango denik, baina epe ertainean agian bai. •



Haririk gabeko garaian, entxufearekiko menpekotasun handia dugu energia lortzeko.

GAUR8

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



EULALIA ABAITUA ALLENDE-SALAZAR. EUSKAL MUSEOA. BILBO

EULALIA ABAITUAK ARGAZKITAN KONTATUAK

Eulalia Abaitua (1853-1943) bilbotarra Euskal Herriko argazkilaritzan aitzindaritzat hartua da. Bigarren Gerra Karlista hastearekin bat senarrak eta biek Liverpoole-ra alde egin zuten eta bertan ikasi zituen argazkilaritza teknika desberdinak. Argazki kamerak ere han erosi zituen. Behin gerra amaituta eta Bilbora bueltan, etxeko sotoan jarri zuen argazki laborategia. Bere obra, 2.500 irudi inguru, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran gauzatu zuen. Ikusten denez, bere argazkiak aurrez prestatuak dira eta berak kokatzen ditu pertsonaiak kamera aurrean, dena bere tokian. Familia giroa, egunerokotasuna, emakumearen lana... Abaituaren begiratuak asko kontatzen du.



GAUR8 *ireki gure leihoa*



5 08 08

9